

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.ehbildu.eus -
20003 Donostia

KONTROL MOZIOA

**ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUKO LANGILEEI ETA
ERABILTZAILEEI PCR FROGAK EGITEKO PROPOSAMENA DELA ETA**

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2020ko irailaren 14ean Pertsonen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Osasun sailak 2020ko abuztuaren 19an argitaratutako aginduak hainbat betebeharrak jasotzen ditu COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko beharrezko prebentzio-neurriak bermatzeko.

Haien artean, gizarte-zerbitzuetako zentro, zerbitzu eta establezimenduetan hartu beharreko neurriak jasotzen ditu:

4.3.5.– Egoitza-izaerako zentro soziosanitarioetako (adinekoen eta desgaitasuna duten pertsonen egoitzetako) ospitaleratze berri guztiei PCR probak egingo zaizkie, gehienez ere 72 ordu lehenago. Era berean, baimenetatik eta oporretatik itzultzen diren langileei eta sartzan diren langile berriei ere proba hori egingo zaie. Halaber, aldizka PCR probak egingo zaizkie egoiliarrekin harreman zuzena duten zentro soziosanitarioetako langileei.

4.3.6.– Prebentzio-neurriak zorrotz bete daitezten, egoiliar bakoitzeko bisitari bakar bat izan daiteke gehienez ere, eta bisita horrek egunean gehienez ordu bate iraungo du. Egoiliarrei egiten zaizkien bisitak egunean zehar mailakatuta izango direla bermatuko da. Neurri horiek salbuetsi egin daitezke bizitzaren amaierako prozesuan dauden pertsonen kasuan.

4.3.7.– Zentro soziosanitarioetako egoiliarren irteerak ahalik eta gehien mugatuko dira.

Gauzak horrela, ulertezina da adinekoen egoitzetan baimenetatik eta oporretatik itzultzen diren langileei, sartzan diren langile berriei eta zerbitzura iristen diren erabiltzaile berriei PCR frogak egitea eta, aldiz, etxez etxeko laguntza zerbitzuaren auxiliarrentzako eta erabiltzaileentzako inolako frogarik ez egitea.

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.ehbildu.eus -
20003 Donostia

Hilabete honetako batzordeetan udal gobernua interpelatu dugunean, delegatuak gure hausnarketa konpartitzen dutela eta Osakidetzarekin negoziatzen daudela adierazi digu, baina gaurkoz ez dago plangintzarik edo protokolo zehatzik.

Kontuan izanda zerbitzuan 420 auxiliar daudela lanean, hiriko 1.500 inguru etxebizitzetara sartzen erabiltzaileak artatzeko, uste dugu prebentzio neurriak hartu behar direla; gizarte-zerbitzuetako zentro, zerbitzu eta establezimenduetan hartu diren bezala.

Hortaz, azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

KONTROL MOZIOA

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, Osasun Sailarekin dtuen koordinatzeko guneetan, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzurako prebentzio-neurriak jasoko dituen agindu bat argitaratzeko beharra eska diezaiola, antzeko beste zerbitzuetarako egin duen bezala.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, Osasun sailak Etxez Etxeko Laguntza zerbitzurako prebentzio neurriak jasoko dituen agindua argitaratzen ez duen bitartean, behin-behineko protokolo bat zehaztu dezala, baimenetatik eta oporretatik itzultzen diren langileei, sartzen diren langile berriei eta zerbitzura iristen diren erabiltzaile berriei PCR frogak egiteko.

Donostian, 2020ko irailaren 18an

Olaia Duarte López

EH Bildu udal taldeko zinegotzia